

JAI BATZORDE ETA KONPARTSETAKO EMAKUMEEI ZUZENDUA:

Orain dela bi urte Euskal Herriko Bilgune Feministak auzo eta herrietako jaien azterketatxoak egin genuen, bilbo barne. Antolakuntza, partaidetza, jaien ekimenak baloratzeko zein osagai sexistak eta eraso sexisten aurrean hartzen diren neurriak aztertzeko galdetegia eginez.

Bilboko Bilgune Feministatik bertako egoera bereziki aztertzen jarraitu nahi izan dugu, eta horretarako diagnostikoaren eguneratzearen beharra ikusi dugu. Honekin batera, jai herrikoi eta parekideen bidean hainbat konpromezu zein ekimen bideratzeko proposamenak bideratu nahi ditugu eta horretarako burutuko dugun tailerlean parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Aurreko azterketaren ondorioak hurrengo atalean irakur ditzakezue. Inkesta Bilboko Jai Batzordeko emakume ezberdineei egindakoa da.

EGOERA AZTERTUZ

Bilboko jaiak ez ditugu guztiok berdin bizi. Ezin dira herrikoiak deitu emakumearen parte hartzea eragozten duten festak.

Jaiak antolatzerakoan emakumea kontutan ez duten jaiak, emakumearen parte hartzea eragotzi edota sustatzen ez duten jaiak, emakume artista edo dena delakoa estaltzen duten jaiak, osagai sexistak (musika, hizkuntza, jai gune arriskutsua) edota eraso sexistak ekiditen eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrera ez duten jaiak, jai sexistak dira.

Beraz, edozein kutsu sexista duten jaiak, ez dira jai parekideak, baizik eta emakumeak jaietan parte hartzeko eta jaiaz gozatzeko duen eskubidea urratzen duten jaiak dira.

Ezin da herriaren erdia albo batera utzi eta ez ikusiarena egin. Jaiak parekideak izan behar dira, eta behingoz, emakumeak baztertu edota kontuan hartzen ez dituztenak desagertzeko bidea egin behar dugu.

GALDETEGIEN ONDORIOAK:

PARTEHARTZEA.

- Jaiak antolatzeko emakume eta gizonak daude jai batzorde ezberdinetan.
- Emakumearen parte hartzea jaietan oso gutxinaka gizonetzkoarena parekatzen ari da.
- Zenbait auzoetan talde feministak daude eta hauek dira batez ere emakumearen parte hartzearen alde lan egiten dutenak. Esan daiteke zeozer lortu bada, Bilboko mugimendu feministak kontzientzia lan hori egin duelako da.

- Jaietan aniztasun sexuala ez da kontutan hartzen. Emakume lesbianen inbisibilitatea ematen da.

- Jai Batzorde gehienetan emakumearen partehartzea bermatuko duen ikuspegi edo planteamendua lantzeko dago. Emakumea jai batzordearen parte aktiboa izanez (hau da konplexu barik beldur barik parte hartzen duelako).

EKIMENAK

- Jaietan aurrera eramaten diren ekimen baztertzaileak poliki-poliki zuzentzen ari dira.

- Oraindik zenbait ekimen nagusiki gizonezkoei zuzenduak daude (mus txapelketa, futbito lehiaketa...)

OSAGAI SEXISTAK

- Jaietan osagai sexistak agertzen dira: musika, hizkuntza sexista, jarrerak, partehartzeko erak, harreman motak, ligatzeko erak...

- Jai gunek oso gaizki argiztatuta daude.

- Jai gunetan ez dago emakumeentzako komun bereziturik.

ERASO SEXISTAK

- Jai Batzorde gehienetan ez dago eraso sexistei aurre egiteko planteamendurik, mekanismorik ezta kanpaina zehatzik ere.

- Jai gunetan emakumeari begirako babesik ez dago.

- Jai Batzordeak orokorrean ez ditu jaietako eraso sexistak bere ardurara lez sentitzen, baizik eta mugimendu feministarena eta hori kriston akatsa da.

**BERAZ, BESTE BILBO BAT LORTZEKO, JAI PAREKIDEAK ETA
HERRIKOIAK LORTZEKO, EMAN DITZAGUN URRATSAK !!**

**TAILERRA ekainaren 2an burutuko dugu 10:00etan La
Bolsan**



euskal herriko bilgune feminista

BILBOKO BILGUNE FEMINISTA